

## **BERTSOEN TXOKOA**

### **IÑAKI BERISTAINI ESKER ONEZ**

ZORTZIKO TXIKIKO DOINUAK:

Orioko balea, Markesaren alaba, uso zuri polita, Triste bizi naiz eta,...

- 1) IÑAKI joan zaigu  
mundutikan hara,  
Komunikatzen finak  
hutsunea laga,  
igandeetako zita  
al zagu akaba?  
zerutik bada ere  
gatzazu anpara.
  
- 2) Euskal Herriko oihua  
Arantzazun gora,  
esker oneko hitza  
zuregana doa,  
abuztuan erdian  
itxura sendoa,  
hilabete ondoren  
zeruak daroa.

3) Hedabideei esker  
etxeko bihurtu,  
onena guretzako  
presta ta osotu,  
“pozik bizi”esanez  
saioaak bukatu,  
jakintza eta dohainak  
izan ta garatu.

4) Egindako guztian  
emaitzak ugari,  
emandako aholkuak  
beti aitzindari,  
irradi,telebista  
gurekin lokarri,  
bihotz eta arimaz  
eskertuz kantari.

*Pilare Baraiazarra  
Bilbotik Arantzazura zerura  
2017ko irailak 26*

